

## **7.BEZEROAREKIKO HARREMANAK:**

Behin enpresa sortuta izan, ezinbestekoak dira bezeroarekiko harremanak, kontsumitzaile berriak lortzeko, salmenta kopurua handitzeko eta aurretik izandako bezeroei eusteko. Horretarako, gure enpresak harreman mota hauek aurkezten ditu.

Batetik, Web-gune bat izango dugu, gure produktuarekiko informazioa erakusteko eta bezeroek gurekin harremanetan jartzeko, korreo elektroniko ([dailywatch@gmail.com](mailto:dailywatch@gmail.com)) eta telefono zenbaki bat (633261387) jarriko dugu. Web gune honetan, gure produktuarekiko informazioa osoa ageriko da, bezero berriek guztia jakin dezaten. Hortaz, gure produktuak dauden lekuaren kokapena adierazten duen mapa bat egongo da, bezeroek joan eta erlojuak ikusi eta probatu ditzaten. Gainera, zalantzaren bat izanez gero pertsonalki argitu ahal izateko, helbide bat zabalduko dugu. Horretaz aparte, Web gunean bertan, iritziak idazteko gune bat egongo da, erosle berriek erreferentzi erreal bat izan dezaten gure produktuengan. Baita, haiei interesgarria irudituko litzaiekona gure erlojuak izatea, proposatzeko beste gune bat. Azkenean, gure eginkizuna da haiek gurekin konfiatzea eta harreman sendo bat haiekin lortzea.

Bestetik, gaur egun sare-sozialak garrantzi handia dutenez, hauetan arituko gara, bezeroek gure produktua ikusteko beste era desberdin, baina eraginkorra delako. Instagram, Facebook eta Twitter sare sozialetan aritzea erabaki dugu, erabilgarrienak direlako momentuan. Batez ere argazkiak argitaratuko ditugu eta hauetan azalpen txikiak, jendearen interesa pizteko helburuarekin. Behin jarraitzaile kopuru dezentea izanda, zozketaren bat egingo dugu, modu batez pixkana pixkana jende gure proiektuan sartzen joateko. Baliabide hauek erabiliz, bezero kopurua handitzea eta hauekin harreman estuagoa lortzea nahi dugu.